

Prentsa oharra

Nota de prensa

URGULLEKO NATUR TXOKORA BISITAK UGARITU DIRA 2024AN

Natur Txokoak % 31 igo du bisitari kopurua 2023. urtearekin alderatuta, eta 2020ko pandemiaren aurreko mailak gainditu ditu. Aurten, ia mila pertsonak parte hartu dute Cristina Enea Fundazioak udaberriaren eta udaren antolatutako jardueretan.




Urgulleko Natur Txokok ia 1.000 bisitari izan ditu aurten, udaberri eta uda denboraldietan zehar, iazko jaitzieratik berreskuratuz. Ekologiako zinegotziak, Iñigo García, nabarmendu duenez, "iazko 708 pertsonetatik, 2024 honetan 931 bisitari izatera pasa gara. %31ko hazkundera izan da, eta azken urteotako bisita kopururik altuenetako bat da, 2022ko zifrak baino txikiagoa izan arren".

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Primavera	188	136	142	0	0	117	168	215
Verano	685	514	508	0	588	986	540	716

Prensa oharra

Nota de prensa

Visitantes Natur Txoko primavera y verano serie 2017-2024



NaturTxokoa Donostiako Udaleko Ekologia Sailaren ekipamendua da, eta Cristina Enea Fundazioak kudeatzen du. Hurrei zuzenduta dago, ingurumenarekiko beharrezkoa den errespetuaz kontzientziazteko, Urgull mendia natur eta ingurumen aberastasunak modu ludiko eta didaktikoan ezagutaraziz.

Natur Txokoa udaberriko eta udako oporraldietan bakarrik egoten da irekita, eta meteorologiak bisita-kopuruan eragin zuzena du; izan ere, programatutako jarduera gehienak kanpoan egiten dira, Urgull mendia gela natural gisa erabiliz. Jarduera guztiak irekiak eta doakoak dira, Txema Hernández Fundazioko zuzendariak gogorarazi duenez.

"Urte honetan zehar, guztira 22 jarduera burutu dira, gaiaren esperientzia duten begiraleek garatu dituztenak", adierazi du Ekologiako zinegotziak, Iñigo García. "Udalaren baliabide bat da, eta bertan parte hartzen duten familiek harrera ona egiten diote, beren seme-alabak programatutako jardueretan parte hartzera eta Urgull mendia ezagutzera eramaten baitituzte."

Aurten ere Urgull mendian autogidatutako jarduerak eskaini dira, hala nola, 'Urgullen altxorraren bila' jokoa, orientazio zirkuitu iraunkorra edo Natur Txokon bertan doan eskuragarri dauden planoen bidez bi ibilbide autogidatu.